

1136/2015 EBAZPENA, MAIATZAREN 28KOA, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARI NAGUSIARENA, 2014-2015EKO ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZAREN DEIALDI BATERATUAN SARTZEKO LANPOSTUAK ZEHAZTEKO IRIZPIDEAK EZARTZEKO DENA.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2014ko abenduaren 9ko Akordioaren bitartez, 2014ko ekitaldirako Ente Publikoko Enplegu Publikoko Eskaintza onartu zen.

Lehengo atalean 2014ko enplegu publikoko eskaintzaosatzen duten lanpostuen kopurua, guztira, 187koa dela jasotzen zen.

Bigarren atalean jasotzen zen Osakidetzaren Giza Baliabideak Antolatzeko Plana garatze aldera, onartu egin zela 187 plaza betetzeko barne-sustapeneko hautatze-prozesuen deialdia.

Bestalde, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko 2015eko otsailaren 23aren Akordioaren bitartez, 2015eko ekitaldirako Ente Publikoko Enplegu Publikoko Eskaintza onartu zen.

Lehengo atalean ezartzen zen 2015eko enplegu publikoko eskaintzaosatzen duten lanpostuen kopurua, guztira, 320koa dela.

Bigarren atalean ezartzen zen, Osakidetzaren Giza Baliabideak Antolatzeko Plana garatze aldera, onartu egin zela 320 plaza betetzeko barne-sustapeneko hautatze-prozesuen deialdia.

Hirugarren atalean adierazten zen pertsonal estatutario finko eta barne-sustapeneko langile iaera eskuratzeko prozesuak era bateratuan garatuko direla.

Bosgarren atalean ezartzen zen, hautatze-prozesuen errazializazioaren eta eraginkortasunaren arrazoiengatik, deitutako plazak 2014ko enplegu publikoko eskaintzari dagozkion plaza gehituko zaizkiela, eta 2014 eta 2015 urteetako enplegu publikoko eskaintzak batera gauzatu direla hautatze-prozesuko deialdi bakar baten bitartez; deialdi horretan bi eskaintzetako plaza hutsen kopuru osoa sartuz.

Zazpigarren atalean ezartzen zen hautatze-prozesuak garatzeko ekintzen kudeaketa haiei dagozkien deialdietako oinarri orokorrek eta espezifikoez zehaztutakoarekin bat etorritik egingo direla.

Azkenik, zortzigarren atalean, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Zuzendaritza Nagusiari ematen zaio deitzen diren hautaketa-prozesuen kudeaketa egiteko ardura, oinarri orokorrak eta espezifikoez kontuan hartuta, eta aldi berean, haren esku uzten da deialdiak gauzatzeko beharrezkoak diren ebazpenak ematea, barne sartuta deitu behar diren lanpostuak zehazteari buruzkoa, kalifikazio-epaimahaiak izendatzeari buruzkoa, eta deialdiei eta destinoen esleipenari buruzkoa.

2014-2015eko EPEko hautaketa-prozesuan deitu beharreko lanpostuak zehaztearen ondorioetarako, ebazpen hau ematen da

EBAZPENA:

Lehena.- Txanda bakoitzean zehaztutako hierarkia-ordena aplikatuta, 2014-2015eko Enplegu Publikoko Eskaintzaren hautaketa-prozesuan deitutako lanpostuak zehazteko irizpide orokorrak ezartzen dira.

1.1. Txanda irekiko deialdian (507 plaza)

- 1.- Bitarteko langileek betetako plaza hutsak, betetze-data zaharretik berrienera kontuan hartuta.
- 2.- Lekualdatze-lehiaketan esleitu gabe edo liberatuta gelditu diren eskaintako plazak, eta 2015eko bigarren seihilekoan deitzeko aurreikusita daudenak.
- 3.- Beharrezkoa izanez gero, titularrik edo betetzen duen langilerik ez duten plazak edo, kasua bada, 2015eko mugikortasun-prozesuen ondorioz hutsik geratuko direnak.

1.2. Barne-sustapeneko deialdian (507 plaza):


- 1.- Aldi-baterako barne-sustapenaren bidez betetako titularrik gabeko plaza hutsak
- 2.- Titularrik edo betetzen duen langilerik ez duten plazak edo, kasua bada, 2015eko mugikortasun-prozesuen ondorioz hutsik geratuko direnak.
- 3.- Beharrezko duten kategorietarako, bitarteko langileek betetzen dituzten plaza hutsak, betetze-data zaharretik berrienera kontuan hartuta

Bigarrena.- Ezarritako irizpideak kategoria bakoitzari dagozkion oinarri espezifikoetan deitutako lanpostu-kopuruaren gainean aplikatuko dira.

Hirugarrena.- Ebazpen honetan dauden 2014-2015eko EPEan deituko diren plazak zehazteko irizpideak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri orokorrak jasotzen dituen ebazpena argitaratzen den egunean.

Laugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa jar daiteke Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren aurrean, hilabeteko epearen barruan, ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, hala ezartzen baitute lege eta dekretu hauek: Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea; Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legea eta Osakidetzaren Estatutu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua.

Vitoria-Gasteizen, 2015eko maiatzaren 28an



Osakidetza
ZUZENDARI Nagusia
DIRECTOR GENERAL

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.

RESOLUCIÓN N° 1136/2015, DE 28 DE MAYO, DEL DIRECTOR GENERAL DE OSAKIDETZA-SERVICIO VASCO DE SALUD POR LA QUE SE FIJAN LOS CRITERIOS PARA LA DETERMINACIÓN DE LOS PUESTOS A INCLUIR EN LA CONVOCATORIA CONJUNTA DE OFERTA DE EMPLEO PÚBLICO 2014-2015

Mediante Acuerdo de 9 de diciembre de 2014, del Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se aprobó la Oferta de Empleo Público del Ente Público para el ejercicio 2014.

En su Apartado Primero se señalaba que el número total de puestos que integran la oferta pública de empleo del 2014 asciende a la cantidad de 187.

En su Apartado Segundo se indicaba que, en desarrollo del Plan de Ordenación de Recursos Humanos de Osakidetza se aprobaba la convocatoria de procesos selectivos de promoción interna para la cobertura de 187 plazas.

Por otra parte, mediante Acuerdo de 23 de febrero de 2015, del Consejo de Administración de Osakidetza- Servicio vasco de salud, se aprobó la Oferta de Empleo Público del Ente Público para el ejercicio 2015.

En su Apartado Primero se establecía que el número total de puestos que integran la oferta pública de empleo del 2015 asciende a la cantidad de 320.

En su Apartado Segundo se establecía que, en desarrollo del Plan de Ordenación de Recursos Humanos de Osakidetza se aprobaba la convocatoria de procesos selectivos de promoción interna para la cobertura de 320 plazas.

En su Apartado Tercero se indicaba que los procesos de acceso a la condición de personal estatutario fijo y de promoción interna se desarrollarán de manera conjunta.

En su Apartado Quinto se establecía que, por motivos de racionalización y eficacia de los procesos selectivos, las plazas convocadas se acumularán a las plazas correspondientes a la oferta pública de empleo 2014, y que la ejecución de las ofertas de empleo público del año 2014 y del año 2015 se realizará de forma conjunta, a través de una única convocatoria del proceso selectivo en el que se incluirá el número total de plazas vacantes de ambas ofertas.

En su Apartado Séptimo se establecía que la gestión de las actuaciones para el desarrollo de los procesos selectivos se realizará conforme a lo que determinen las bases generales y las específicas de las respectivas convocatorias.

Finalmente, en su Apartado Octavo se encomienda a la Dirección General de Osakidetza-Servicio vasco de salud la gestión, conforme a las bases generales y específicas, de los procesos selectivos que se convoquen y se le faculta para dictar cuantas resoluciones sean necesarias para su ejecución, incluyendo la determinación de los puestos a convocar, la designación de los tribunales calificadoros y la resolución de las convocatorias y adjudicación de destinos.

A efectos de la determinación de los puestos a convocar en el proceso selectivo OPE 2014-2015, se viene a dictar la presente

RESOLUCIÓN:

Primero.- Se fijan los criterios generales para la determinación de los puestos a convocar en el proceso selectivo de la Oferta Pública de Empleo 2014-2015 por el orden jerárquico de aplicación que se determina en cada turno:

1.1. En la convocatoria de Turno Libre (507 plazas):

- 1.- Plazas vacantes ocupadas por personal interino, teniendo en consideración la fecha de ocupación más antigua a la más reciente.
- 2.- Plazas ofertadas no adjudicadas y/o liberadas en el Concurso de Traslados cuya convocatoria está previsto que se efectúe en el segundo semestre de 2015.
- 3.- En el caso de que sea preciso, plazas vacantes sin titular ni ocupante, o las que en su caso se liberen como consecuencia de los procesos de movilidad del año 2015.

1.2. En la convocatoria de Promoción Interna (507 plazas):


- 1.- Plazas vacantes sin titular ocupadas en Promoción Interna Temporal.
- 2.- Plazas vacantes sin titular ni ocupante, o las que en su caso se liberen como consecuencia de los procesos de movilidad del año 2015.
- 3.- Para las categorías en que sea preciso, plazas vacantes ocupadas por personal interino, teniendo en consideración la fecha de ocupación más antigua a la más reciente.

Segundo.- La aplicación de los criterios establecidos se realizará sobre el número de puestos de trabajo convocados en las Bases Específicas de las correspondientes categorías.

Tercero.- La aplicación de los criterios de determinación de las plazas a convocar en OPE 2014-15 contenidos en la presente resolución se efectuará a la fecha en la que se publique en el Boletín Oficial del País Vasco la resolución que contiene las bases generales que ha de regir el proceso selectivo.

Cuarto.- De acuerdo con lo establecido en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, y en la Ley 8/1997, de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi, así como en el Decreto 255/1997, de 11 de noviembre, por el que se establecen los Estatutos Sociales de Osakidetza, contra esta Resolución podrá ser interpuesto recurso de alzada ante el Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio vasco de salud, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el BOPV.

En Vitoria-Gasteiz, a 28 de mayo de 2015



El Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.